

XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

1302

69/2021 DEKRETUA, otsailaren 23koa, Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa.

Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitekoak eta jardun-arloak Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 9. artikuluan jasota daude; izan ere, dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen ditu eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen.

Dekretu horren azken xedapenetako lehenengoan aurreikusitakoaren arabera, dekretu honek sailaren egitura eta egitekoak ezartzen ditu, aipatutako xedapenean adierazitako antolaketa-irizpideei eta aurreikuspenei jarraituz. Egitura hori hiru sailburuordetzatan antolatuta dago; horietako bakoitza sailaren arlo nagusiez arduratzen da. Gainera, sailburuordetza horiei Kontrol Ekonomikoko Bulegoa lotzen zaie, zeinak, sailburuordetzaren maila organiko berarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko jarduera ekonomikoa fiskalizatzen baitu, sortze-legearen eta ondorengo garapenen arabera; gainera, ekonomia- eta finantza-informazioa emateaz arduratzen da, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari dagokienez, bai eta laguntza eta dirulaguntza publikoen jarraipenaz eta kontrolaz ere.

Ekonomiako eta Europako Funtsetako Sailburuordetzari agintzen zaio zuzendu eta koordina ditzala Jaurlaritzaren politika ekonomikoa eta plangintza estrategikoa. Era berean, sailburuordetza horrek zuzendu eta koordinatuko ditu programa eta politika publikoen ebaluazioa eta analisia, Euskal Autonomia Erkidegoak Europako kohesio-politikaren arloan egiten dituen jarduerak, Europako suspertze- eta erresilientzia-funtsen plangintza eta analisia, bai eta ikerketa ekonomikoaren, azterlan eta metodo ekonomikoen, ekonomiaren koiuntura eta aurreikuspenen eta lehiaren defentsaren arloak ere.

Finantza eta Aurrekontu Sailburuordetza ondorengo arloekin zerikusia duten jardun-arloen ondorioz sailak dituen eskumenez arduratzen da: kredituaren antolamendua; finantza-politika eta finantza-erakundeekiko harremanak; finantzaketa tresna publikoen kudeaketa; aurrezki-kutxak, banku-fundazioak eta kreditu-kooperatibak; diru-bilketaren kudeaketa, diruzaintza, zorpetzea eta bermeak ematea; aseguru- eta berraseguru-jarduera; aseguru-bitartekaritzaren jarduera baimentzea eta kontrolatzea; balore-merkatua; gizarte-aurreikuspeneko erakundeak; eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorra zuzendu, landu eta kudeaketa orokorra, jarraipena eta kontrola egitea.

Bestalde, Ogasun Sailburuordetzan biltzen dira Kontzertu Ekonomikoaren, Estaturako Kupoaren eta Lurralde Historikoen ekarpenen arloan administrazio honi dagozkion eskumenak eta egitekoak. Euskal Autonomia Erkidegoaren, Estatuko Administrazioaren eta bestelako lurralde-erakunde batzuen artean transferitzekoak diren eskumenak edo zerbitzuak baloratzeko eskumena ere sailburuordetza honek izango du. Aldi berean, finantza-jarduera beste administrazio publiko batzuekin koordinatzeaz eta harmonizazio, koordinazio eta lankidetzaren fiskalaren arloko eskumenez arduratzen da, eta autonomia-erkidegoko zerga-administrazioa eta erreklamazio ekonomiko-administratiboaren erregimena zuzentzeko eta ikuskatzeko ardura ere badu, horretarako jarritako organoak erabiliz. Ondarearen, kontratazioaren eta arrisku eta aseguruaren kudeaketaren

arloan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak dituen eskumenen ondorioz sortutako araubide orokorrak zuzentzea ere organo honi dagokio.

Sailaren egitura organikoa Zerbitzu Zuzendaritzarekin eta Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzarekin osatzen da. Zerbitzu Zuzendaritza saileko arlo desberdinetako gai komunetan eskumena duen sail barruko organoa da. Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzak, berriz, honako egitekoak ditu: sailburuari laguntza eta aholkularitza ematea sailaren eskumenak eta politikak behar bezala garatzeko eta gauzatzeko, sailburuari informazioa eta publizitatea emateko estaldura egokia bermatu eta koordinatzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko, Estatuko eta nazioarteko beste entitate, erakunde eta organismo publiko eta pribatu batzuekiko harreman instituzionalak erraztu, garatu eta mantentzea.

Ekonomia eta Ogasun Sailari atxikitzen zaizkio Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística (Eustat) eta Lehiaren Euskal Agintaritza organismo autonomo administratiboak eta Finantzen Euskal Institutua / Instituto Vasco de Finanzas zuzenbide pribatuko ente publikoa.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren proposamenez, Lehendakariak onartuta, eta Gobernu Kontseiluak 2021eko otsailaren 23an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

ANTOLAMENDU OROKORRA

1. artikulua.– Egitekoak, eskumenak eta jardun-arloak.

1.– Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitekoak eta jardun-arloak Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 9. artikuluan jasota datoz. Dekretu hori, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzeari eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzeari buruzkoa da.

a) Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak zuzendu, landu eta horien kudeaketa orokorra egitea, baita jarraipena eta kontrola ere. Horietaz gain, aurrekontuei buruzko programazioa.

b) Sektore publikoaren aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-jasangarritasuna.

c) Barne-kontrol ekonomikoa, kontabilitatea eta kontabilitate-erantzukizunak.

d) Laguntza eta dirulaguntza publikoen araubidea arautzea eta gainbegiratzea.

e) Kredituaren antolamendua, finantza-politika eta finantza-erakundeekiko harremanak. Euskal Autonomia Erkidegoak euskal sektore ekonomikoak finantzatzeko eta haietan partaidetza publikoa izateko dituen tresna publikoak kudeatzea.

f) Aurrezki-kutxak, banku-fundazioak eta kreditu-kooperatibak.

g) Diru-bilketaren kudeaketa, diruzaintza, zorpetzea eta bermeak ematea.

h) Aseguru- eta berraseguru-jarduera, bai eta aseguru-bitartekaritzaren jarduera baimentzea eta kontrolatzea ere.

- i) Balore-merkatua.
 - j) Gizarte-aurreikuspeneko erakundeak.
 - k) Ekonomia Ituna, Estatuarentzako kupoak eta lurralde historikoen ekarpenak. Transferitzekoak diren eskumen eta zerbitzuak baloratzea, eta Estatuarekiko finantza-fluxuak finkatzea, Gizarte Segurantzaren finantzaketari dagokionez.
 - l) Finantza-jarduera beste administrazio publiko batzuekin koordinatzea.
 - m) Harmonizazio, koordinazio eta lankidetzak fiskala.
 - n) Zerga-administrazioa eta erreklamazio ekonomiko-administratiboak.
 - o) Ondarea eta kontratazioa.
 - p) Jaurlaritzaren politika ekonomikoa eta plangintza estrategikoa, bai eta programa eta politika publikoen ebaluazioa eta analisia ere.
 - q) Europako kohesio-politika, Europako suspertze- eta erresilientzia-funtsen plangintza eta azterketa.
 - r) Ikerketa ekonomikoa. Azterlan eta metodo ekonomikoak. Ekonomiaren koiuntura eta aurreikuspena.
 - s) Lehiaren defentsa.
 - t) Estatistika.
 - u) Sailari atxikita dauden edo haren mendeko diren sektore publikoko entitateak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.
 - v) Legeek eta erregelamenduek ematen dizkieten gainerako ahalmenak.
- 2.– Halaber, aurreko paragrafoan jasota dauden gai horiekin zerikusia duen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko beste organo edo enteren bati berariaz atxiki gabe dauden bestelako ezein eskumen ere Ekonomia eta Ogasun Sailarena izango da.
- 3.– Beste egiteko hauek ere Ekonomia eta Ogasun Sailari dagozkio:
- a) Hitzarmenak eta akordioak sinatzea eta harremanak izatea Estatuko Administrazio Orokorrekin eta Instituzionalarekin, beste autonomia-erkidego batzuekin, lurralde historikoekin eta toki-korporazioekin, beste entitate batzuekin eta pertsona publiko zein pribatuekin, artikulua honekin orain arteko epigrafeetan zehazturiko gaietan edo, legez edo Jaurlaritzaren erabakiz, agintzen zaizkion bestelako gaietan, betiere, indarrean dauden legeetan hala ezarrita badago.
 - b) Orokorrean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren egiturako sailen esku uzten diren eskumen komunak.
- 4.– Artikulu honetan aipatzen diren gaietan, administrazio-prozeduraren fase guztiak Ekonomia eta Ogasun Sailaren ardurapekoak izango dira, eta, orokorrean, betearaztea izango da haren egitekoa, non eta ez den beste zer edo zer ulertzen dekretu hau irakurrita edo maila bereko beste xedapen batzuk irakurrita.

2. artikulua.– Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura orokorra.

1.– Aurreko artikuluan zehazturiko gaiei buruzko eskumenak baliatzeko, Ekonomia eta Ogasun Saila organo hauetan egituraturik egongo da:

a) Ekonomia eta Ogasuneko sailburua:

- 1) Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.
- 2) Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza.
- 3) Zerbitzu Zuzendaritza.

b) Ekonomiako eta Europako Funtsetako Sailburuordetza:

- 1) Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.
- 2) Kohesio Politikaren eta Europako Funtzen Zuzendaritza.

c) Finantza eta Aurrekontu Sailburuordetza:

- 1) Finantza Politikako Zuzendaritza.
- 2) Aurrekontu Zuzendaritza.

d) Ogasun Sailburuordetza:

- 1) Zerga Administrazioko Zuzendaritza.
- 2) Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza.
- 3) Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza.

2.– Aurreko paragrafoan adierazitako organoen mailatik beheragoko administrazio-unitateak Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren agindu baten bidez garatuko dira.

3.– Organo hauek ere Ekonomia eta Ogasun Sailari atxikita egongo dira, sorrera-arauetan zehaztutakoaren arabera:

a) Bahitutako Ondasunak eta Eskubideak Itzultzeko Batzorde Instrukziogilea.

b) Euskal Estatistika Batzordea.

c) Euskal Estatistika Kontseilua.

d) Kontratazio Batzorde Nagusia.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea.

f) Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa.

g) Euskadiko Ekonomia Arduralaritzako Epaitegia.

h) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa.

i) Gizarte Aurreikuspenaren Euskal Kontseilua.

4.– Organismo autonomo eta ente hauek ere Ekonomia eta Ogasun Sailari atxikita daude:

a) Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística (Eustat) organismo autonomo administratiboa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren bitartez.

b) Lehiaren Euskal Agintaritza organismo autonomo administratiboa, Ekonomiako eta Europako Funtsetako Sailburuordetzaren bitartez, betiere haren autonomia organiko eta funtzionalari kalterik egin gabe, otsailaren 2ko 1/2012 Legeak ezarritako baldintzetan.

c) Finantzen Euskal Institutua / Instituto Vasco de Finanzas zuzenbide pribatuko ente publikoa, Finantza eta Aurrekontu Sailburuordetzaren bitartez.

5.– Bada zuzendaritza-kontseilu bat ere, saileko politika gauzatzeko laguntzeko. Ekonomia eta Ogasuneko sailburua izango da kontseilu horretako burua, eta gainerako kideak, berriz, hauek izango dira: Ekonomia eta Ogasun Saileko sailburuordeak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoko zuzendaria, eta horiei atxikitako konfiantzazko edo behin-behineko langileak. Zuzendaritza Kontseiluan parte hartu ahal izango dute, izan iraunkorki zein puntualki, sailaren titular den sailburuak egoki irizitako Ekonomia eta Ogasun Saileko goi-kargudunek zein konfiantzazko edo behin-behineko langileak.

II. KAPITULUA

SAILBURUA

3. artikulua.– Ekonomia eta Ogasuneko sailburua.

1.– Ekonomia eta Ogasuneko sailburuari dagokio Jaurlearitza buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. eta 28. artikuluetan ezarritako eskumenak erabiltzea, bai eta indarrean dagoen legeriak esleitzen dizkionak ere, Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren arabera sail honi esleitutako egiteko eta jardun-arloen esparruan (18/2020 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen).

2.– Beste egiteko hauek ere Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren ardura dira:

a) Sailaren politiken helburu estrategikoak definitzea, gobernu-programan definitutako estrategia-lerroen eta programa-konpromisoen esparruan, eta lortutako gizarte-inpaktuaren analisia egitea.

b) Autonomia-erkidegoen eta Estatuko Ogasunaren finantza-jardunak ondo koordinatzeko organorik sortzen baldin bada, dena delako organo horretan parte hartzea eta Euskal Autonomia Erkidegoa ordezkatzeta.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak koordinatzea, bai zerga- eta finantza-gaietan beste administrazio publiko batzuen aurrean azalpenak eskatu edo eman behar direnean, bai Ekonomia Itunetik datozen baliabideak banatzeko sistemaren puntu erkideetan, hargatik eragotzi gabe Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren berezko egitekoak.

d) Saileko organo eta jarduera guztiak programatu, bultzatu, zuzendu, koordinatu eta kontrolatzea.

e) Sailaren 1.000.000 euroko edo hortik gorako gastuak baimentzea, hargatik eragotzi gabe Gobernu Kontseiluaren eskumenak.

f) Izendapen askeko lanpostuak betetzea, aurretik deialdi publikoa eginda, baita behin-behineko langileak izendatzea ere.

g) Ekonomia eta Ogasun Saileko kontratazio-organoari dagozkion ahalmenak erabiltzea, baldin eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua edo, halakorik ezean, balio zenbatetsia, BEZa barne, 1.000.000 eurokoa edo hortik gorakoa duten kontratuak eta hitzarmenak badira.

Halaber, prestazioen zenbatekoa aurreko paragrafoan zehaztutakoaren berdina bada edo kopuru hori gainditzen badu, sailburuak eskumena izango du Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateen bitarteko propio pertsonifikatuaren izaera duten entitateei mandatuak egiteko, sektore publikoaren kontratazioa erregulatzen duen araudiaren arabera.

h) Saileko organoen arteko eskudantzia-gatazkak ebaztea eta beste sail batzuekin daudenak planteatzea.

i) Zuzenean eta hierarkian sailburuaren mende dauden zuzendaritzetako eta sailburuordetzetako titularrek emandako administrazio-egintzen aurka jartzen diren errekursoak ebaztea.

j) Sailaren jarduera dela-eta sortzen diren ondare-erantzukizuneko espedienteak ebaztea.

k) Saileko organoek emandako egintza deuseztagarrien kaltegarritasun-espedienteak hasi eta ebaztea.

l) Saileko organoek emandako xedapen eta egintza deusezak berrikusteko espedienteak hasi eta ebaztea, alde batera utzita dekretu honen 15.1 artikulua f) letran xedatutakoa.

m) Indarrean dagoen araudiak Ekonomia eta Ogasun Sailari esleitutako egitekoak izanik, saileko beste ezein organori edo sailaren mendeko beste ezein enteri eman ez zaizkion egitekoak, eta, dekretu honen 1. artikuluko gaiekin zerikusia duten eskumenen artetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko beste organo batzuei berariaz eman ez zaizkienak.

3.– Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren mende daude, zuzenean eta hierarkikoki, Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza eta Zerbitzu Zuzendaritza.

4. artikulua.– Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoak sailburuordetzaren maila organiko bera izango du, eta, dekretu honen 7. artikuluan adierazitako egitekoez gain, honako hauek ere izango ditu:

a) Kontabilitatearen eta barne-kontrol ekonomikoaren arloko egiteko guztiak betetzea, betiere, gai horiek erregulatzen dituen araudiaren arabera.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateen eta partaidetza duten entitateen ekonomia- eta finantza-jarduerari buruzko dokumentuak, kontuak eta txostenak etengabe gainbegiratzea, informazioa emateko jarraibideak ezartzea eta adierazitako agiriak landu eta banatzea.

c) Diru-sarreraren, gastuen eta defizit edo superabitaren exekuzio-aurreikuspenak egitea, kontabilitate nazionalaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomia- eta finantza-informazioaren terminoetan, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren arloko araudian aurreikusitakoa betetz, eta Euskal Autonomia Erkidegoari aplikatzekoak zaizkion aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko arauak eta helburuak betetzen direla kontrolatzea.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esparruan eta, Kontuen Europako Sistemaren definizioaren eta mugaketaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio

Publiko gisa sailkatuta dauden entitateen eremuan, merkataritza-zorra eta zor ez-finantzarioa kuantifikatzeko eta haren jarraipena egiteko, ordaintzeko batez besteko epea kalkulatzeko eta berankortasuna kontrolatzeko beharrezkoa den informazioa gainbegiratzea eta jarraibideak ezartzea.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateen eta partaidetza duten entitateen inbentarioa egin, mantendu eta kudeatzea.

f) Europako funtsak eta auditoretza-agintaritzaren funtzioak kontrolatzeko jarduerak egitea, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak izaera hori duen funtsetan.

g) Gardentasuna sustatzea eta ekonomiari, finantzei eta aurrekontuei buruzko informazioa zabaltzea, herritarrek informazio hori eskura izan dezaten bereziki zainduz.

h) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen kontabilitatearen eta barne-kontrol ekonomikoaren arloan bitartekoak nahiz baliabide elektroniko eta informatikoak nola aplikatzen eta ezartzen diren gainbegiratu eta kontrolatzea, kontabilitatearen informatizazioa planifikatu eta diseinatzuz, tratamendu informatikoa nahitaezkoa duten kontabilitate-lanak zein izango diren erabakiz, kontabilitate publikoaren arloan egin beharreko garapen informatikoei onespena emanez, eta informatizatutako kontabilitate-informazioa irispidean izan eta erabiltzeko baimenak emanez.

i) Arlo ekonomikoan gobernu arduratsua eta arriskuen kudeaketa eta barruko kontrola egiteko politikak jartzearen alde egin, eta politikok koordinatu eta gainbegiratzea, helburu hartuta Euskal Autonomia Erkidegoan sektore publikoaren kudeaketa hobetzea eta xedeak erdiesten laguntzea.

j) Laguntza eta dirulaguntza publikoen jarraipena eta kontrola.

k) Herri Kontuen Euskal Epaitegiarekin, Estatuko Kontuen Epaitegiarekin eta kanpo-kontrolerako beste organo batzuekin koordinatzea eta lankidetzan aritzea, bai eta beste administrazio publiko batzuetako kontu-hartzailetzako eta barne-kontrol ekonomikoko organoekin koordinatzea ere.

5. artikulua.– Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza.

Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzak, dekretu honen 8. artikuluan ematen zaizkion egiteko orokorrez gain, honako hauek ere izango ditu:

a) Sailburuaren lan-programa eta -jarduna antolatzea eta horri jarraipena egitea.

b) Sailburuari sailaren eskumen eta politikak ongi garatu eta burutzeko behar dituen laguntza eta aholkuak ematea, sailaren eskudantzien jardun-irizpideak eta -planak identifikatuz.

c) Sailburuak eskatuta, sailaren politika garatzeko interesgarriak diren ikerlan eta azterketak identifikatzea eta, hala behar bada, lantzea.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko, Estatuko eta nazioarteko entitate, erakunde eta organismo publiko eta pribatuekiko harreman instituzionalak bultzatu, garatu eta mantentzea, sailak eragin-ahalmen handiagoa izan dezan ingurune estrategikoetan eta ingurune horietako funtsezko eragileengan (interes-taldeak –stakeholder–, komunikabideak, eta abar).

e) Sailari atxikitako sektore publikoko entitateen komunikazioa gainbegiratu eta koordinatzea, hargatik eragotzi gabe Lehiaren Euskal Agintaritzaren autonomia organikoa eta funtzionala.

f) Saileko ekitaldi ofizialak eta protokoloak antolatzea, hargatik eragotzi gabe Lehendakari-tzari dagozkionak, eta sailaren biltzarrak, jardunaldiak edo mintegiak koordinatzea.

g) Sailaren eskumenekoak diren politika publikoei dagokienez, haren jardunei buruzko informazioa eta publizitatea behar bezala ematen dela bermatu eta koordinatzea, sailtako organoei laguntzeko unitate gisa jardunez.

h) Sailaren zereginean eragina duten gaien inguruko informazio egokia bildu, aztertu eta aurkeztea, gaiarekin zerikusia duten saileko beste organo eskudunekin elkarlanean.

i) Komunikabideekiko harremanak planifikatu, ezarri eta artatzea.

j) Sailaren informazio orokorraren komunikazio- eta hedapen-ekintzak egitea, sailtako organoei laguntzeko unitate gisa jardunez.

k) Interneten eta sailaren sare sozialetan edukiak kudeatu, definitu eta mantentzea, bai eta sailari dagokion informazioa ere Administrazioaren webgune horizontaletan, saileko gainerako organoen laguntzarekin.

6. artikulua.– Zerbitzu Zuzendaritza.

1.– Zerbitzu Zuzendaritzak, 8. artikuluan adierazitako egitekoez gain, honako hauek izango ditu:

a) Sailari atxikita dauden langileen burua izango da eta sailarekin zerikusia duten administrazio-egintzak eta ohiko kudeaketa-lanak beteko ditu, baita indarrean dagoen araudiak agintzen dion beste edozein egiteko ere. Bereziki, egiteko hauek izango ditu:

1) Langile-gaietan Euskal Funtzio Publikoaren arauak sail bakoitzari ematen dizkioten eskumenak erabiltzea.

2) Langileen prestakuntzarako eta hobekuntzarako planak eta programak prestatzea, hargatik eragotzi gabe funtzio publikoaren ardura duen zuzendaritzaren eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eskudantziak.

3) Langileen arloan jartzen diren errekurtsioak ebazteko izapideak eta proposamenak egitea, hargatik eragotzi gabe funtzio publikoaren arloan ardura duten organoen eskudantziak.

b) Sailaren aurrekontuei buruzko aurreproiektua koordinatu eta lantzea, eta haren jarraipena egitea; sailari atxikitako sektore publikoko entitateen aurrekontu-proiektuak koordinatu eta sailarenarekin bateratzea; aurrekontuan egin beharreko aldaketak izapidetzea, eta saileko gastu-programak ebaluatzea.

c) Sailaren kudeaketa ekonomikoa egitea, behar den informazio-, etengabeko ebaluazio- eta jarraipen-sistemak ezarri eta mantenduz.

d) Sailaren 1.000.000 eurotik beherako gastuak baimentzea.

e) Saileko atalek lanpostuak fisikoki kokatzeko eta ekipamendua banatzeko egiten duten lana eta lekua eraberritzeko eta hobetzeko egiten dituzten obrak zuzentzea, hargatik eragotzi gabe hainbat sailtarako diren zerbitzuen ardura duten organo eskudunen eskumenak.

f) Sailaren egoitzetako barne-araubidea bete eta zaintzea, eta sailari atxikitako ondarea eta ekipamendua kudeatu eta zaintzea.

g) Sailaren Erregistro Orokorra, Artxiboa, Liburutegia eta gainerako dokumentazio-zentroak kudeatzea, hargatik eragotzi gabe hainbat sailtarako zerbitzuen ardura duten organo eskudunen eskudantziak.

h) Sailaren zerbitzu eta lan-moldeen barne-antolaketari, arrazionalizazioari eta informatizazioari buruzko proposamenak egitea, saileko gainerako organoekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren organo eskudunekin koordinaturik.

i) Saileko Segurtasun eta Osasun Atalaren lanak zuzendu eta antolatzea, hargatik eragotzi gabe Prebentzio Zerbitzuaren eskudantziak.

j) Sailaren gaien artetik Gobernu Kontseiluak eta, hala badagokio, gobernu-batzordeek onartu beharrekoak direnak hara bidaltzeko izapideak egitea, berariaz bestelakorik adierazi ezean.

k) Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. artikulua araber, Eusko Legebiltzarra igorri behar diren gaiak hara bidaltzeko izapideak egitea eta sailak Arartekoarekin izan behar dituen harremanak kudeatzea, organo eskudunen bitartez.

l) Aldizkari ofizialetan argitaratu behar diren dokumentuen bidalketa izapidetzea eta gardentasunari buruzko arau aplikagarrietatik sortutako publikotasun aktiboaren betebeharrak betetzea.

m) Sailean dauden informazio publikoa eskuratzeko eskabideak izapidetu eta ebatzea, gardentasunari buruzko arau aplikagarri jarraituz.

n) Komunikazio-organoa gisa jardutea gainerako sailekin eta sailarekin harremanetan dauden organismo edo entitateekin, eta sailarteko batzorde eta kontseiluetan parte hartzea, baldin eta aztergaien artean zuzendaritza honen ardurapeko egitekoren bat badago.

o) Sailaren jardunarekin lotuta sortzen diren ondare-erantzukizuneko espedienteak hasi eta izapidetzea, ondoren sailburuari emateko, ebatz ditzan.

p) Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren berariazko gaien, antolaketaren eta informatikaren inguruan sailari dagozkion eskumenak kudeatzea.

q) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen argitaratze-jarduerari buruzko irailaren 25eko 135/2018 Dekretuan xedatutakoaren arabera sailari dagozkion egitekoak betetzea.

r) Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak kudeatzeko eredu arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuan xedatutakoaren arabera sailari dagozkion egitekoak.

s) Sailak egindako datu pertsonalen tratamenduei aplikatu beharreko segurtasun- eta pribatasun-neurriak ezartzeko behar den laguntza tekniko eta antolakuntzako koordinatu eta ematea.

2.– Zerbitzu zuzendariak erabiliko ditu Ekonomia eta Ogasun Saileko kontratazio-organoi dagozkion ahalmenak, lizitazioaren oinarriko aurrekontua edo, halakorik ezean, balio zenbatesia, BEZa barne, 1.000.000,00 eurotik beherakoa duten kontratu eta hitzarmenetan.

Halaber, prestazioen zenbatekoa 1.000.000,00 eurotik beherakoa bada, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateen bitarteko propio pertsonifikatuaren izaera duten entitatei mandatuak egiteko eskumena izango du, sektore publikoaren kontratazioa erregulatzen duen araudiaren arabera.

3.– Gainera, Ekonomia eta Ogasun Sailaren eremuan, Zerbitzu Zuzendaritzak ardura hauek izango ditu:

a) Sailaren aholkularitza juridikoa, sailaren araugintza egituratu eta lantzea baitagokio saileko gainerako zuzendaritzekin koordinatuz; sailaren gainerako organoek beren gain hartu ez dituz-

ten aholkularitza eta laguntza juridikoko jarduerak egingo ditu, eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen bidez saileko aholkularitza juridikoei esleitu zaizkien gainerako egitekoak ere bai.

b) Administrazioa eraberritu eta modernizatzearen eta administrazio elektronikoaren, kudeaketa aurreratuaren, gobernantzaren eta berrikuntzaren inguruan eskumena duten organoek mahai gainean jarritako ekimenak eta gidalerroak garatu eta gauzatzeko behar diren euskarriak bermatzea, gobernu-programan gai horien inguruan ezarri diren aurreikuspenak sailaren jarduketa-arloan garatzeko.

c) Sailaren barne-koordinazioa Europar Batasuneko arauak eta politikak landu eta aplikatze-arakoan, gaien izapidetzea eta saileko organoek Europar Batasuneko erakundeekin izan behar dituzten harremanak bideratuz, Lehendakartzako organo eskudunaren bidez.

d) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Eusko Jaurlaritzak onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planean xedatutako neurrien betearazpena bultzatu eta koordinatzea, eta, horretarako, lankidetzan jardutea saileko zuzendaritzekin eta sailari atxikitako organismo autonomo, entitate eta organoekin, saileko berdintasun-unitatearen bidez.

e) Euskararen erabilera sustatzea, saileko euskara-unitatearen bidez, zeinaren egitekoa izango baita, beste batzuen artean, Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana eta Saileko Euskararen Erabileraren Urteko Kudeaketa Plana garatzea eta haien jarraipena eta ebaluazioa egitea, eta jardun-eremuan aplikatu beharreko hizkuntza-irizpideak definitzea, betiere hizkuntza-politikaren arloan eskumena duen organoaren gidalerroei jarraituz.

f) Saileko gainerako organoek hizkuntza-normalizazioaren arloan egindako lana koordinatu eta dinamizatzea, hizkuntza-politikaren arloan eskumena duen organoaren laguntzarekin, eta euskara sustatzea politika publikoetan eta sailak kudeatzen duen beste edozein alorretan.

g) Herritarrei informazioa eman eta harrera egiteko sailaren zerbitzuen funtzionamendu onena ziurtatzea (harrerako 2. eta 3. mailak), baita herritarrei harrera egiteko Jaurlaritzaren Zuzenean zerbitzuarekin harremanak behar bezala artikulatzea ere, bere eskumenen eremuko arloetan solaskide operatiboak badaudela ziurtatuz.

h) Sailak herritarrekiko interakzioaren zerbitzura jarritako kanal elektronikoaren erabileraren koordinazioa eta jarraipena egitea, eta plangintzarako, araugintzarako eta politiken eta zerbitzu publikoen kalitatearen ebaluaziorako kanal presentzialak edo birtualak irekitzea suspertzea.

III. KAPITULUA

SAILEKO SAILBURUORDETZAK ETA ZUZENDARITZAK

7. artikulua.– Ekonomia eta Ogasun Saileko sailburuordetzak.

Orokorrean, egiteko hauek izango dituzte Ekonomia eta Ogasun Saileko sailburuordeek:

a) Saila ordezkatzeko, sailburuak eskuordetuta.

b) Sailburuordetzako eta sailburuordetzaren mende dauden zuzendaritzetako organo eta jarduera guztiak zuzendu, koordinatu, sustatu, programatu eta gainbegiratzea; halaber, mendeko zerbitzu eta organoen antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko jarraibideak eta zerbitzu-aginduak ematea.

c) Jardun-politikak prestatzea eta sailburuari horiek proposatzea eta laguntza teknikoa ematea, agintzen zaizkion egitekoen alorrean.

d) Xedapen-proiektuak proposatzea, ezarritako jardun-politikarekin bat.

e) Sailburuordetzaren mendeko organoek emandako ebazpenen eta administrazio-egintzen aurka jarritako errekurtsioak ebaztea.

f) Sailburuordetzaren mendeko zuzendaritza-zentroen eta organismoen funtzionamendua ikuskatzea eta kontrolatzea.

g) Saileko hizkuntza-normalizazioaren ardura bere gain hartzea eta bere eskumeneko esparruetan euskararen erabilera bultzatzea, zerbitzu- eta lan-hizkuntza izan dadin, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko, bat etorritz Gobernu Kontseiluak onartutako Euskararen Agenda Estrategikoarekin.

h) Bere sailean eta bere eskumeneko esparruetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko erantzukizuna bere gain hartzea, Gobernu Kontseiluak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planean ezarritakoarekin bat etorritz.

i) Indarrean dagoen ordenamendu juridikoak esleitzen dizkien eskumen eta egitekoak eta, komunak direlako, sailburuordeei oro har dagozkienak.

8. artikulua.– Ekonomia eta Ogasun Saileko zuzendaritzak.

Orokorrean, egiteko hauek izango dituzte Ekonomia eta Ogasun Saileko zuzendariak:

a) Sailburuaren eta sailburuordeen ebazpenak betearaztea eta eskuordetzen zaizkien eskudantziak baliatzea.

b) Saila ordezkatzeta, sailburuak eskuordetuta.

c) Zuzendaritzaren jarduera guztiak programatu, bultzatu, zuzendu, koordinatu eta kontrolatzea.

d) Zuzendaritza barruko zerbitzuak eta lan-sistemak antolatzea organo eskudunek ezarritako arauak aintzat harturik, eta, batez ere, espediente-erregistroak eta -artxiiboak antolatzea, Zerbitzu Zuzendaritzari dagozkion eskudantziak ezertan eragotzi gabe.

e) Errekurtsioak ebaztea, indarrean dagoen araudian aurreikusten diren kasuetan.

f) Dagokien eskumen-eremu materialean emandako egintza deuseztagarrien kaltegarritasun-espedienteak izapidetzea.

g) Dagokien eskumen-eremu materialean emandako xedapen eta egintza deusezak berrikus-teko espedienteak izapidetzea.

h) Zerbitzu Zuzendaritzaren gidaritzapean eta hizkuntza-politikaren arloko eskumena duen organoarekin elkarlanean, indarrean dagoen Euskara Normalizatzeko Planeko helburuak definitzea beren esparruan eta horiek lortzeko ekimenak garatu eta ebaluatzea, beren zuzendaritzako zerbitziburuekin batera euskararen kudeaketa integratua eginez.

i) Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezarri eta inplementatzea, eta horien jarraipena egitea Zuzendaritzaren jardun-esparruetan, besteak beste: itzulpen-irizpideak, langileen etengabeko prestakuntza orokorra, izendapen ofizialak eta sailak antolatutako ekitaldi publikoak. Halaber, hala dagokionean, kontratazio publikoan eta dirulaguntzak emateko deialdietan hizkuntza-irizpideak sartzea proposatzea.

j) Zerbitzu Zuzendaritzaren gidaritzapean eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin elkarlanean, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Planeko helburuak definitzea beren esparruan eta horiek lortzeko ekintzak eta ekimenak gauzatu eta ebaluatzea, beren zuzendaritzako zerbitziburuekin lankidetzan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken kudeaketa integratua eginez.

k) Indarrean dagoen ordenamendu juridikoak espresuki esleitzen dizkien eskumen eta egiteko guztiak eta, komunak direlako, oro har zuzendariei dagozkienak.

IV. KAPITULUA

SAILBURUORDETZAK

1. ATALA

EKONOMIAKO ETA EUROPAKO FUNTSETAKO SAILBURUORDETZA

9. artikulua.– Ekonomiako eta Europako Funtsetako Sailburuordetza.

1.– Ekonomiako eta Europako Funtsetako Sailburuordetzak Ekonomia eta Ogasun Sailari esleitutako eskumenak erabiliko ditu honako gai hauetan, betiere Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren zuzendaritzapean: Jaurlaritzaren politika ekonomikoa eta plangintza estrategikoa; programa eta politika publikoen ebaluazioa eta analisia; ikerketa ekonomikoa; azterlan eta metodo ekonomikoak; ekonomiaren koiuntura eta aurreikuspena; Europako kohesio-politika, Europako suspertze- eta erresilientzia-funtsen plangintza eta azterketa; eta lehiaren defentsa. Sailburuordetzaren titularrari dagokio, dekretu honen 7. artikuluan adierazitako egitekoez gain, honako hauek betetzea:

a) Jaurlaritzaren plangintza ekonomikoa eta ikerketa ekonomikoaren, ekonomia-azterlanen eta ekonomiaren koiunturaren eta aurreikuspenaren arloak zuzendu eta koordinatzea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Europako kohesio-politikaren arloan egiten dituen jarduketak zuzendu eta koordinatzea.

c) Europar Batasunak ezarritako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak kudeatutako egitura-funtsei, Kohesio Funtsari eta egiturazkoak ez diren beste finantza-tresna batzuei buruzko jardueren eta, bereziki, Europako suspertze- eta erresilientzia-funtsen sustapen estrategikoa.

d) Plangintza estrategikoa hobetzeko eta politika publikoak ebaluatzeko ekimenak bultzatzea.

e) Lehiaren defentsaren arloko arau-proposamenak egitea.

f) Orokorrean, ekonomiari eta lehiaren defentsari buruzko legeak bete daitezela ziurtatzea, horretarako beharrezkoak diren neurriak hartuz edo, hala badagokio, proposatuz, eta indarrean dagoen araudiak agintzen dizkion bestelako egiteko guztiak betetzea.

2.– Ekonomiako eta Europako Funtsetako Sailburuordetzaren mende daude, zuzenean eta hierarkikoki, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza eta Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritza.

10. artikulua.– Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

1.– Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak, dekretu honen 8. artikuluan adierazitako egitekoez gain, honako hauek izango ditu:

a) Jaurlaritzaren epe ertainerako politika ekonomikoaren gidalerroak eta orientabideak prestatu eta proposatzea, bai eta politika horren exekuzioa eta sailen eta administrazio-unitateen jarduerak –ekonomian eragina dutenak– koordinatzea eta horien jarraipena egitea ere, eta politika ekonomiko sektorialak politika ekonomiko orokorrarekiko koherenteak izango direla zaintzea.

b) Jaurlaritzaren plangintza ekonomikoak bere baitan izan behar dituen tresnak eta edukiak definitu eta sortzea.

c) Euskal sektore publiko osoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren jarraipena eta azterketa egitea, bai administrazio publikoena, bai haiei atxikitako sektore publikoarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren urte anitzeko programazioa errazago egokitu eta eguneratzeko.

d) Euskal Autonomia Erkidegoa parte den gainerako erakunde publikoen jarduna planifikatzen parte hartzea, Jaurlaritzak erabakitzen duen moduan; eta gizarteko eta ekonomiako eragileek parte hartu ahal izateko moduak dinamizatu eta sustatzea, ekonomiaren egiazko plangintza hitzartua lortzeko.

e) Indarrean dauden arauen arabera lurraldea antolatzeko tresnak sortzeko prozesuetan parte hartzea, hain zuzen ere, eskualdearen plangintzan eragina duten eta ekonomiarekin zerikusia duten erabakietan.

f) Jaurlaritzak garatutako programa eta politika publikoak ebaluatu eta analizatzea, hargatik eragotzi gabe barne-kontrol ekonomikoaren arloan Kontrol Ekonomikoko Bulegoari dagozkion eskumenak. Egiteko horiek betetzean, honako hauek dagozkie:

1) Plangintza estrategikoa hobetzeko ekimenak proposatzea.

2) Ebaluatu beharreko politika publikoak identifikatu, aztertu eta hautatzea, eta ebaluazio horien ondorioen jarraipena egitea, eragindako sail sektorialekin koordinatuta.

3) Egiturazko azterketara eta politika publikoen inpaktuaren ex-ante simulaziora eta ex-post ebaluaziora bideratutako tresna kuantitatiboak eta ereduak garatu eta egokitzea.

4) Politika publikoak ebaluatzeko kultura sustatzea.

5) Ebaluazio-metodologiak formulatu eta hedatzea.

Egiteko horiek guztiak Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailarekin koordinatuta beteko dira, politika publikoak definitzean eta gauzatzean Euskal Gobernantza Publikoa aplikatzeko eredu diseinatzeari dagokionez dituen eskumenak baliatuz.

g) Euskal ekonomiari buruzko azterlanak, txostenak eta argitalpenak egitea, bai orokorrak, bai sektorialak.

h) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak egiten dituen eta jardun ekonomikoan eragina duten azterlanak koordinatzea, eta ekonomiaren arloan diharduen edozein organori laguntza teknikoa ematea, Gobernu Kontseiluak, hala badagokio, ezarritako baldintzetan.

i) Ikerketa ekonomikorako metodoak garatzea; bereziki, euskal ekonomiarako ereduak eta ekonomia horren sektore edota segmentuetarako ereduak.

j) Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera ekonomikoari buruzko urteroko eta sei hileroko txostenak egitea. Txosten horiek Euskadiko aurrekontu-araubidea erregulatzen duten arauetan eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Batzordearen arauetan daude aurreikusita.

k) Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren eta politika ekonomikoaren egoeraren eta bilakaera orokor eta sektorialaren jarraipena egitea –erkidegoarena zein erkidegoan eragina duenarena–, baita nazioko eta nazioarteko koiuntura ekonomikoarena ere, aurreikuspen-teknikak sortuz eta erabiliz eta koiuntura ekonomikoari buruzko azterlanak, txostenak eta argitalpenak eginez.

l) Urteko aurrekontu-esparrua gainditzen duten politika ekonomikoko neurrien eragin ekonomiko eta finantzarioaren azterketa, ebaluazioa eta kuantifikazioa egitea.

m) Eskualde, nazio eta nazioarte mailako adierazle ekonomikoen datu-baseak mantendu eta ustiatzea.

n) Estatuko eta nazioarteko organismo eta foroekin elkarrizketak izatea aurreikuspen ekonomikoen arloari buruz.

o) Euskal Estatistika Planak esleitutako estatistika-eragiketak egitea, bai eta Euskal Estatistika Erakundearekin (Eustat) harremana izatea ere, plan hori garatzeko eta eragiketa berriak proposatzeko edo daudenak hobetzeko.

2.– Sailaren berariazko estatistika-organoa Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari atxikitzen zaio, betiere Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren Estatistika Organo Berezia sortu eta haren antolakuntza eta jarduera ezartzen dituen martxoaren 8ko 48/2005 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

11. artikulua.– Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritza.

Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritzak, dekretu honen 8. artikuluan adierazitako egitekoetz gain, honako hauek izango ditu:

a) Euskal Autonomia Erkidegoak Batasuneko Kohesio Politika aplikatzeko izan behar duen esparru estrategikorako proposamena egitea, suspertze- eta erresilientzia-mekanisмотik sortutako jarduketak barnean hartuta, eta Euskal Autonomia Erkidegorako Estatu Laguntzen Maparako proposamena egitea, aplikatu behar den Batasuneko araudiarekin bat etorriz.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan Europar Batasunaren esku-hartze programak eta ekimenak lantzea, horien jarraipena egitea eta kontrolatzea, Europako kohesioaren eta eskualde-politikaren arloan, alde batera utzita nekazaritza, arrantza eta elikaduraren arloetan eskumena duten sailek lantzen dituzten programak eta ekimenak.

c) Jaurlaritzari informazioa ematea Europar Batasuneko politika ekonomikoaren eta, batez ere, eskualde-politikaren eta Batasuneko kohesioaren bilakaera eta garapenari buruz.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko barneko eskualde-politikari buruzko programak egin, proposatu eta kudeatzea.

e) Europar Batasunak ezarritako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak kudeatutako egitura-funtsek, Kohesio Funtsak eta egiturazkoak ez diren beste finantza-tresna batzuek,

eta bereziki Europako suspertze- eta erresilientzia-funtsek, batera finantzatutako jarduerak programatu, jarraitu eta ebaluatzea, gaiaren arabera eskumena duten sailekin koordinatuta.

f) Europako suspertze- eta erresilientzia-funtsen kontura finantzatutako jarduera eta proiektuak gauzatzearekin lotutako gastu-baimenei buruzko txostena egitea –aurretiazko eta nahitaezko txostena–, dagokion araudi erregulatzailan ezarritakoaren arabera, ekimen horietan aurreikusitako helburuak betetzeko eskaintzen duten laguntza-mailari buruz.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esparruan, Europako funtsen kudeaketa koordinatzea, baldin eta mailegu eta dirulaguntza gisa transferitu badira Batasuneko urte anitzeko finantza-esparruetatik eratorritako programen bitartez, bai eta organo kudeatzaileek bideratutako administrazio- eta finantza-prozeduraren jarraipena eta ikuskapena egitea ere.

h) Sailarteko elkarrizketa-mekanismoak proposatzea, koordinatu ahal izateko Eusko Jaurlaritzak egin behar dituen jarduerak Europako funtsen kargura eta, bereziki, Europako suspertze- eta erresilientzia-funtsen kargura finantzatzen diren programak egin, gauzatu, jarraitu eta ebaluatzeko, bai eta Euskadiko beste administrazio publiko batzuekin, gizarte-solaskideekin eta maila anitzeko sektore eta kolektiboekin hitz egiteko eta proposamenak integratzeko tresnak proposatzea, ekimenek koherentzia izan dezaten, onartuak izan daitezten eta programa horiek Euskal Autonomia Erkidegoan arrakastaz ezartzeko aukera eman dezaten.

i) Europako funtsen kargura finantzatutako programen gauzatzearen jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresnak proposatzea.

j) Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea, Euskal Autonomia Erkidegoarekin lotura daukaten Europar Batasunarekiko finantza-fluxuak analizatzeko, jarraitzeko eta ebaluatzeko.

k) Europako funtsak koordinatzeko organo, batzorde eta lantaldeetan ordezkaritza izatea.

2. ATALA

FINANTZA ETA AURREKONTU SAILBURUORDETZA

12. artikulua.– Finantza eta Aurrekontu Sailburuordetza.

1.– Finantza eta Aurrekontu Sailburuordetzak Ekonomia eta Ogasun Sailari esleitutako eskumenak erabiliko ditu honako gai hauetan, betiere Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren zuzendaritzapean: kredituaren antolamendua, finantza-politika eta finantza-erakundeekiko harremanak; finantzaketa-tresna publikoen kudeaketa; aurrezki-kutxak, banku-fundazioak eta kreditu-kooperatibak; diru-bilketaren kudeaketa, diruzaintza, zorpetzea eta bermeak ematea; aseguru- eta berraseguru-jarduera; aseguru-bitartekaritzaren jarduera baimendu eta kontrolatzea; balore-merkatua; gizarte-aurreikuspeneko erakundeak; eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrek zuzendu eta lantzea eta haien kudeaketa orokorra, jarraipena eta kontrola egitea, bai eta aurrekontu-programazioa egitea ere. Sailburuordetzaren titularrari dagozkio, dekretu honen 7. artikuluan adierazitako egitekoez gain, honako hauek:

a) Urteko aurrekontuetan errespetatu behar diren gidalerro ekonomikoak eta teknikoak lantzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren aurreproiektua eta aurrekontuak onartzeko lege-aurreproiektua egitea, gai horri buruz indarrean dagoen araudiaren arabera.

b) Aurrekonturako kargaren bat dakarten lege-proiektu guztiek berekin eraman behar duten finantzaketa-eranskina prestatzea eta aurrekontu-kredituak gehitzeko edo kentzeko landu behar

diren proiektuak egitea, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoari eskumenak edo zerbitzuak transferitzearen ondoriozkoak edo Euskal Autonomia Erkidegoak beste administrazio publiko batzuei transferitzearen ondoriozkoak badira.

c) Urte anitzeko aurrekontu-plangintza zuzendu, taxutu eta ezartzea, eta, horretarako, sailak eta gainerako erakunde eta ente publikoak koordinatzea.

d) Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko araudian aurreikusitako kasuetan ekonomia- eta finantza-planak, doikuntza-planak edo berrorekatzeko-planak egiteko lanak koordinatzea, eta, oro har, egonkortasuneko aurrekontu-dokumentuak egin eta garatzea.

e) Euskal Autonomia Erkidego guztiaren interesekoak diren gastu publikoko ekimenak ekitaldi bakoitzeko programa eta aurrekontuetan nola zehaztu behar diren koordinatzea, eta Sailak gastu publikoaren arloan egiten duen lana koordinatzea.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko aurrezki-kutxa, banku-fundazio eta kreditu-kooperatiben antolaketari, mendekotasun-araubideari eta araubide juridikoari lotutako berariazko baimen, onespren eta kontzesioak ematea, baldin eta indarrean dagoen legediaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren egitekoak badira.

Edonola ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrezki Kutxen Kontrol Batzordean ordezkaria izendatzea dagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrezki Kutxei buruzko ekainaren 14ko 11/2012 Legearen 66. artikuluan xedatutakoaren arabera.

g) Arauak hausteagatik aurrezki-kutxek, banku-fundazioek eta kreditu-kooperatibek eragindako zehapenak proposatzea eskumena duen organoari, indarrean dagoen legediaren arabera betiere, eta zehapen-espeditenteak izapidetzea.

h) Baimen- eta errebokatze-egintzekin zerikusia duten egitekoak betetzea, baldin eta aseguru- eta berraseguru-jarduera gainbegiratzearen arloan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagozkion eskumenak egikaritzearekin lotuta badaude; aseguru eta berraseguru pribatuak banatzeko jardueri buruzko inskripzioak egitea dagozkien erregistroetan, eta erregistro-inskripzioak ezereztea eragiten duten zehapen-prozedurak ebaztea.

i) Zehapen-prozedurak ebaztea, higiezin kredituko bitartekariak eta higiezin mailegu-emai-leak gainbegiratzearen arloan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagozkion eskumenak baliatuz.

j) Aurrerakinak eskatzea eta, hala badagokio, geroratzeak onartzea, Autonomia-erkidegoko erakunde komunak eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 25.2 artikuluari jarraituz.

k) Diruzaintza-arloan eskumena daukan sailari zorrak atzeratzeko edo zatikatzeke esleitu zaizkion eskabideak izapidetu eta ebaztea, borondatezko epean zein epe exekutiboan, bermea jartzea eskatzen denean, betiere aplikatu beharreko araudiaren arabera.

l) Euskal Autonomia Erkidegoan finantzen arloari dagokionez indarrean dagoen araudiak Ekonomia eta Ogasun Sailari agindutako egitekoak betetzea, bermeak formalizatu, aldatu eta berresteari buruzkoak.

m) Finantzen arloan Euskal Autonomia Erkidegoaren gain utzitako harremanak koordinatzea, eta gai horretan eskumena duten organoetan erkidegoaren ordezkari izatea, bereziki Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalean eta edozein arlotako finantza-erakundeetan.

n) Espainiako Bankuarekiko, Europako Inbertsio Bankuarekiko, kreditu-erakundeekiko eta beste finantza-erakunde batzuekiko harremanak, bai eta kreditu-arriskuak kalifikatzeko nazioarteko agentziekiko harremanak ere.

o) Euskal Autonomia Erkidegoak euskal sektore ekonomikoak finantzatzeko eta haietan partaidetza publikoa izateko dituen tresna publikoak antolatu, koordinatu eta kudeatzea.

p) Orokorrean, aurrekontuei, finantza-politikari eta finantza-erakundeekiko zein gizarte-aurreikuspeneko erakundeekiko harremanei, diruzaintzari, zorpetzeari eta bermeak emateari buruzko legeak bete daitezela ziurtatzea, horretarako beharrezkoak diren neurriak hartuz edo, hala bada-gokio, proposatuz, eta indarrean dagoen araudiak agintzen dizkion bestelako egiteko guztiak betetzea.

2.– Finantza eta Aurrekontu Sailburuordetzaren mende daude, zuzenean eta hierarkikoki, Finantza Politikako Zuzendaritza eta Aurrekontu Zuzendaritza.

13. artikulua.– Finantza Politikako Zuzendaritza.

Finantza Politikako Zuzendaritzak, dekretu honen 8. artikuluan adierazitako egiteko ez gain, honako hauek beteko ditu:

a) Aurrezki-kutxen, banku-fundazioen eta kreditu-kooperatiben antolaketa, mendekotasun-araubide eta araubide juridikoari dagokienez indarrean dagoen legeriaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esku dauden egitekoak, dekretu honen 12. artikuluko 1.f) atalean daudenak izan ezik. Bereziki, entitate horiek Ekonomia eta Ogasun Sailari bidali behar dizkioten agirien jarraipena eta gainbegiratzea egingo du.

Nolanahi ere, zuzendaritza horri dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko aurrezki-kutxen eta kreditu-kooperatiben erregistroak eta entitate horien zuzendaritza-organoetako goi-kargudunen erregistroa kudeatu, zaindu eta bideratzea.

b) Autonomia-erkidegoko araudiak finantza-politikaren eta finantza-erakundeekiko harremanen arloko eskumenak dituen sailari esleitutako egitekoak elkar bermatzeko sozietateei dagokienez, autonomia-erkidegoaz kanpoko administrazioekin erlazionatutakoak izan ezik, horiek sailburuari baitagozkio.

c) Autonomia-erkidegoko araudiak diruzaintza-arloko eskumenak dituen sailari emandako egitekoak, ordainketa-aginduak bereziki, eta Euskal Autonomia Erkidegoko finantzen arloan indarrean dagoen araudiaren babespean burututako diruzaintzako eragiketen kudeaketa.

d) Zergaz besteko zuzenbide publikoko sarreren bilketaren kudeaketa zuzentzea, borondatezko epean, salbu eta prezio publikoena eta zergaz besteko ondare-prestazio publikoena. Diru-bilketa kudeatzea epe exekutiboan, edozein kontzeptugatik, eta zorra erantzule subsidiarioei bideratzea. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketari buruzko Erregelamenduan diruzaintza-arloko eskumena duen sailari esleitutako eskumenak dagozkio, Finantza eta Aurrekontu Sailburuordetzari esleitutakoak izan ezik.

e) Epai judizial irmoak betearaztearen eta administrazio-errekurtsuak baiestearen ondorioz epe exekutiboan bildutako diru-sarrerak itzultzeko prozedura kudeatzea.

f) Euskadiko Zor Publikoaren eta kreditu- edo mailegu-eragiketen kudeaketa osoa; sailburuak baimendutako zorpetze-eragiketek zein ezaugarri izango duten zehaztea; eta zuzenbide pribatuko ente publikoen eta sozietate publikoen zorpetze-eragiketak baimentzea.

g) Emandako Bermeen Erregistroaren kudeaketa. Hala ere, zuzenbide pribatuko ente publikoek eta sozietate publikoek bermeak eman ahal izateko baimena sailburuak eman behar du.

h) Euskal Autonomia Erkidegoko baloreak kontratatzeko zentrozen araubide juridikoa erregulatzeko duen araudiaren arabera Ekonomia eta Ogasun Sailari dagozkion egitekoak, arau-hauste oso astunengatik zehapenak ezartzeko ahalmena izan ezik, ahalmen hori sailburuarena baita.

i) Ekonomia eta Ogasun Sailaren eskumeneko diren finantzen, finantza-erakundeekiko harremanen eta diruzaintzaren inguruko prozedurak izapidetzea, horiek ebatzea berari ez dagokionean, eta indarrean dagoen araudiak esleitzen dizkion bestelako egitekoak betetzea.

j) Erregistroak bideratzea, jardueraren jarraipena egitea, ikuskapen-lanak egitea, zehapen-espedienteak izapidetzea, eta aseguru eta berraseguru pribatuak banatzeko jarduerak gainbegiratzeko gainerako eskumen guztiak, Finantza eta Aurrekontu Sailburuordetzari esleitutakoak izan ezik.

k) Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei buruzko araudia betetzen den kontrolatu, gainbegiratu eta ikuskatzea, gobernu-organoen antolaketa eta funtzionamenduari eta, batez ere, gizarte-aurreikuspeneko erakundeen kaudimenari eta jarduera ekonomiko eta finantzarioari dagokienez.

l) Gizarte-aurreikuspeneko erakundeek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari igorri behar dioten ekonomia- eta finantza-dokumentazioa arautu, garatu, horren jarraipena egin eta gainbegiratzeko, baita borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen sustapen- eta garapen-programak landu eta kudeatzea ere.

m) Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-aurreikuspen osagarriaren arloan politika publiko orokorrak ikertu, aztertu, diseinatu eta proposatzea, baita Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroa zuzendu, antolatu eta kudeatzea ere.

n) Erregistroak kudeatzea, jardueraren jarraipena egitea, ikuskatzea, zehapen-espedienteak izapidetzea, eta higiezinaren kredituko bitartekariak eta higiezinaren mailegu-emaitzak gainbegiratzeko gainerako eskumen guztiak, Finantza eta Aurrekontu Sailburuordetzari esleitutakoak izan ezik.

o) Konkurtso-prozesuetan akordioak edo hitzarmenak sinatzea; dena dela, zenbait kasutan, baliteke Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak edo Gobernu Kontseiluak aurretik baimena eman behar izatea.

p) Euskal Autonomia Erkidegoak euskal sektore ekonomikoak finantzatzeko eta haietan partaidetza publikoa izateko dituen tresna publikoak antolatu, koordinatu eta kudeatzeko neurriak aztertu, analizatu, diseinatu eta proposatzea.

14. artikulua.– Aurrekontu Zuzendaritza.

1.– Aurrekontu Zuzendaritzak, 8. artikuluan adierazitako egitekoez gain, honako hauek izango ditu:

a) Aurrekontu-politikako helburuak eta irizpideak antolatzea, sektore publikoko gastu eta sarren urte anitzeko programazioa egitea, Euskadiko Aurrekontu Orokorrek urtero egitea eta haien exekuzioaren jarraipena egitea, Jaurlearitzak ezarritako politika ekonomikoko jarraibideekin bat etorritik. Zeregin horiek betetzean, honako egiteko hauek dagozkie:

1) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko organo eta entitateen aurrekontu-egitura prestatu eta dagokion organo eskudunari proposatzea, onetsi dezan.

2) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko osoari aplikatu behar zaizkion aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko araudiaren printzipio gidariak antolatzea, urterik urte eta hainbat urtetarako.

3) Sektore publiko osoaren aurrekontu-egonkortasuneko, zor publikoko eta gastu-arauko helburuak proposatzea, helburu horien betetze-mailaren jarraipena egitea eta gerta daitezkeen desbideratzeak zuzentzeko neurriak proposatzea.

4) Urteko aurrekontu-agertokiak prestatzea, nola diru-sarrerarenak hala gastuenak, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretako baliabideen esleipen organiko, ekonomiko eta funtzionala proposatzeko behar diren azterlan eta txostenak egitea ere.

5) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateen aurrekontu orokorren aurreproiektuak lantzeko oinarri izango diren gidalerro ekonomiko eta teknikoak prestatzea, dagokion organo eskudunak onets ditzan, bai eta horiek egiteko prozesua koordinatzea ere.

6) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legearen proiektuarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa koordinatu eta lantzea.

b) Aurrekontuak prestatzeko teknika modernoak jartzeko beharrezkoak diren azterlanak egitea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren organoetan ezartzea, lortu beharreko helburuak behar bezala identifikatzeko, helburuak zenbateraino bete diren jakiteko adierazle operatiboak formulatzeko eta gastu-programen emaitzak programaz programako aurrekontuaren arabera ebaluatzeko, aukerak nahiz jarri beharreko baliabide globalak aztertuz eta zehaztuz.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan jasotako helburuak lortze aldera ekinzen betearazpenari jarraipena egin eta bultzada ematea, aurreikusitako xedeak betetzeko bidea emango duten neurriak proposatuz, eta, hala badagokio, baliabideak berresleitzea aurrekontuetako diru-sarrerak eta gastu publikoa optimizatu ahal izateko.

d) Eduki ekonomiko esanguratsua duten arau-proposamenei, planei, hitzarmenei eta erabakiei buruzko txostenak egitea, aurrekontu-eragina ebaluatzeko eta dagozkion doitze-neurriak proposatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren 27.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz (testu bategin hori urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen).

e) Urte anitzeko gastuen inguruan eta aurrekontuen aldaketa ororen inguruan ordenamendu juridikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari esleitzen dizkion egitekoak, Jaurlaritzari edo beste organo batzuei esleitutakoak izan ezik. Bereziki, sailek proposatutako aurrekontu-aldaketan bidezotasuna eta egokitasuna aztertzea dagokio, haien ondorioei, finantzaketari eta izapideei dagokienez.

f) Laguntza teknikoa ematea Jaurlaritzak eta Legebiltzarrak aurrekontuen inguruan izaten duten harremanean.

g) Aurrekontuen arloko prozedurak izapidetzea eta, hala badagokio, proposatzea, baldin eta prozedurak ebatzea ez badagokio berari baina haien gaineko eskumena Ekonomia eta Ogasun Sailarena bada. Nolanahi ere, eskumena izango du Administrazio Orokorren Aurrekontuak osatzen dituzten eta sail jakinenak ez diren aurrekontu-atalen hasierako baimena eta kudeaketa orokorra egiteko.

h) Funtzio publikoaren arloko araudiak Ekonomia eta Ogasun Sailari esleitzen dizkion eskumenak egikaritzea. Zehazki, honako hauek dagozkie:

1) Ekonomia- eta aurrekontu-politika orokorraren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko langile-gastuek bete behar dituzten jarraibideak proposatzea.

2) Langileen arloan gastua aldaraz dezaketen neurriei buruzko nahitaezko txostena –eta, hala badagokio, loteslea– prestatzea.

3) Funtzio publikoaren arloan eskumena duen sailarekin batera, aurrekontu-plantillak egitea.

4) Aurrekontu-plantillaren jarraipena eta kontrola, barnean hartuta, hala badagokio, aurrekontu-plantilla aldatzeko espedienteen txostena, ekitaldi bakoitzeko Aurrekontuen Legeak ezartzen duenaren esparruan.

5) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko langileen ordainsariak aztertzea eta haien gaineko balorazio ekonomikoa egitea.

i) Aurrekontuan generoaren dimentsioa garatzea eta ezartzea, bere eskumenen esparruan, eta, zehazki, aurrekontuaren genero-eraginari buruzko txostena egitea.

j) Estatu-, foru- eta toki-administrazioetako aurrekontu-organoekin koordinatzea eta, hala bada, gorkio, elkarlanean aritzea.

k) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak prestatu, kudeatu, ebaluatu eta horien jarraipena egiteari buruzko beste edozein egiteko betetzea, baldin eta arloa erregulatzen duen araudian edo indarrean dagoen ordenamendu juridikoan jasota badaude eta beste organo bati esleitu ez bazaizkio.

3. ATALA

OGASUN SAILBURUORDETZA

15. artikulua.– Ogasun Sailburuordetza.

1.– Ogasun Sailburuordetzak erabiliko ditu, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak zuzenduta, honako gai hauetan Ekonomia eta Ogasun Sailari esleitu zaizkion eskumenak: Ekonomia Ituna, Estatuari eman beharreko kupoa eta lurralde historikoen ekarpenak; transferitzekoak diren eskumen edo zerbitzuen balorazioa; Gizarte Segurantzaren finantzaketari dagokionez Estatuarekin izan beharreko finantza-fluxuak zehaztea; finantza-jarduera beste administrazio publiko batzuekin koordinatzea; harmonizazio, koordinazio eta lankidetzak fiskala; zerga-administrazioa eta erreklamazio ekonomiko-administratiboak, eta ondare- eta kontratazio-arloko eskumenak. Sailburuordeari dagokio, halaber, 7. artikuluan zehaztutako egitekoez gain, honako hauek betetzea:

a) Ordenamendu juridikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari esleitzen dizkion eskumen guztiak, Ekonomia Itunaren kudeaketatik eratorritako baliabideen banaketa-sistemaren ingurukoak zein Itunetik eratorritako finantza-gaien ingurukoak, non eta ez dauden Eusko Jaurlaritzari edo bestelako organoren bati emanda.

b) Euskal Gizarte Segurantzaren finantzaketaren inguruan Estatuko Administrazioarekin ezar daitezkeen finantza-fluxuak zein izango diren zehaztea.

c) Euskal Autonomia Erkidegoaren, Estatuko Administrazioaren eta bestelako lurralde-erakunde batzuen artean transferitzekoak diren eskumenak edo zerbitzuak baloratzea.

d) Lurralde historikoen arteko koordinazio, harmonizazio fiskal eta lankidetzari dagokienez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagozkion zerga-arloko eskumenak egikaritzea, ordenamendu juridikoak xedatutakoaren arabera.

e) Zerga-arloko eta zerga-araubide propioko eskumenak, Ekonomia Itunaren ondorioz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari eman zaizkionak, Eusko Jaurlaritzari emandakoak izan ezik.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren nahiz haren organismo autonomoen organoek emandako zerga-egintza guztien ofiziozko berrikusketei buruzko espedienteak hasi eta ebaztea.

g) Euskal Autonomia Erkidegoarekin lotuta dauden finantza-fluxu europarren jarraipena egitea.

h) Ekonomia Itunaren araubidea eta kupoa zehazteko metodologia erregulatzen dituzten arauak aztertzea, horiei buruzko txostenak idaztea eta proposamenak lantzea, eta beste horrenbeste egitea kupoa aplikatzearekin lotutako neurriekin, betiere lurralde historikoetako organo eskudunekin lankidetzan arituz.

i) Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen esparruan, Estatuarekiko eta lurralde historikoekiko finantza-harremanen ondorio diren diru-sarrerren gaineko jarduketa ekonomiko eta finantzarioak programatu, jarraitu, ebaluatu eta koordinatzea.

2.– Bere jurisdikzio bereziaren barruan egindako erreklamazioak ebazteko duen independentzia funtzionala ezertan eragotzi gabe, Euskadiko Ekonomia Arduralaritzako Epaitegia Ekonomia eta Ogasun Sailari atxikita dago, Ogasun Sailburuordetzaren bitartez.

3.– Ogasun Sailburuordetzaren mende daude, zuzenean eta hierarkikoki, honako zuzendaritza hauek: Zerga Administrazioiko Zuzendaritza, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza, eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza.

16. artikulua.– Zerga Administrazioiko Zuzendaritza.

Zerga Administrazioiko Zuzendaritzak, 8. artikuluan adierazitako eskudantziez gain, honako hauek izango ditu:

a) Ordenamendu juridikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari eta Insti-tuzionalari zerga-administrazioaren arloan ematen dizkion eskumen guztiak, tasa eta kontribuzio berezien kudeaketarekin lotutako administrazio-egintzen gainekoak izan ezik, baldin eta horien zerga-egitatea ez bada Ekonomia eta Ogasun Sailaren eskumenekoa, diru-bilketa eta erreklama-zio ekonomiko-administratiboa kanpo utzita. Atal honetan xedatutakoak ez du ezertan eragozten organismo autonomoek beren eskubide ekonomiko propioak administratu, kudeatu eta eraginkor egiteko duten eskumena, indarrean dauden xedapenek adierazten duten moduan.

b) Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko zuzenbide publikoko erregimenean zerbitzuak emategatik ezartzen diren zergaz besteko ondare-prestazio publikoei buruzko nahitaezko txos-tena egitea, prestazio horiek tasa eta prezio publikoekin mugatzeko.

c) Zergadun edo ordezkio gisa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagozkion zerga-betebehar guztiak betetzea, Administrazioiko organo guztien laguntza bilduta, sailak berak, orokorrean eta kasu bakoitzerako, ezarritako baldintzen arabera.

d) Zergadun edo ordezko gisa Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko gainerako entitateei dagozkien zerga-betebeharrak betetzen direla kontrolatzea eta betebeharrak horiei buruzko aholkuak ematea.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren nahiz haren organismo autonomoen organoek emandako zerga-egintza guztien ofiziozko berrikusketei buruzko espedienteak izapidetzea.

f) Zerga Koordinazioko Organoari laguntza teknikoa eta administratiboa ematea.

g) Zerga-arloan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagozkion harmonizazio, koordinazio eta lankidetzak fiskalari buruzko ikerketa, azterlan eta txostenak egitea, ordenamendu juridikoak xedatutakoaren arabera.

h) Zerga-araudiak zerga-bilketan duen eraginari buruzko azterketak eta ikerlanak egitea, baita Euskal Autonomia Erkidegoan bildutako zerga-baliabideei buruzkoak ere.

i) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari izatea edozein ente publikoren aurrean, bien artean zerga-harremanak badaude eta Administrazioa, zergadun edo ordezko gisa, harreman horietako partaide bada.

j) Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoari laguntza eta babes tekniko-administratiboa ematea, esleituta dituen egitekoak bete dituzan, Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritzarekin koordinatuta.

k) Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeari laguntza eta babes tekniko-administratiboa ematea, esleituta dituen egitekoak bete dituzan.

l) Foru-aldundiek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak zerga-informazioa trukatzeko adosten dituzten tresnen kudeaketa-organoetan parte hartzea, bai eta organo horietan erabakitzen den informazio-trukea kudeatzea ere.

17. artikulua.– Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza.

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak, 8. artikuluan adierazitako egitekoen gain, honako hauek izango ditu:

a) Ondare-kontuetan:

1) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren titulartasunekoak izanik Euskadiko ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen gaineko jabari-ahalmenak erabiltzea; ondasun eta eskubide horiek kudeatu, administratu, ustiatu, ordezkatu eta auzitegietatik kanpora defendatzea; betearaztea Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bateginean arauturiko sailaren eskumeneko gaiei buruz Gobernu Kontseiluak hartzen dituen erabakiak, eta ondasunak eta eskubideak defendatu eta babesteko ekintzak egikaritzea, berariaz beste organo edo entitateen bati agindu zaionean salbu, eta hargatik eragotzi gabe atxikitze-egintzak berekin dakartzan ahalmenak.

2) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren titulartasunekoak izanik Euskadiko ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak kudeatu, administratu eta ustiatzea, baldin eta beste organo edo entitate batzuei atxikita ez badaude.

3) Euskadiko ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen afektazioa, desafektazioa, atxikipena, desatxikipena eta erabilera-aldaketa, bai eta higiezin errentamendua ere, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bateginean xedatzen den bezala.

4) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari edozein eratako enpresa eta sozietatetan partaide izateagatik dagozkion eskubideak erabiltzea, beste organo bati berariaz esleitu zaizkionak izan ezik.

5) Ustez Euskadiko ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideei buruz ikertzea; edozein tituluren bidez horiek erabiltzeko baimena duten pertsonak edo enteek nola erabiltzen dituzten ikertzea; ondareak mugatzea eta mugarriztatzea; horiek babestu, defendatu eta erreibindikatzea, eta erantzukizunak eskatzeko eta zehapenak ezartzeko prozedurak instruitu eta ebazpen-proposamenak egitea, ondare-arloko legeriarekin bat etorritz.

6) Euskadiko ondarearen aurkako egitateak jurisdikzio penalarik jakinaraztea, delitu edo falta izan badaitezke.

7) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Ondareko Ondasunen eta Eskubideen Inbentario Orokorra landu eta eguneratzea, eta, halaber, ondasun horiek depuratzea –bai fisikoki, bai juridikoki– eta dagozkien erregistro publikoetan inskribatzea.

8) Ondarearen arloan Ekonomia eta Ogasun Sailaren eskumenekoak diren prozedura guztiak izapidetu eta dagozkien agiriak formalizatzea; eta Euskal Autonomia Erkidegoaren ondareko ondasunak edo eskubideak ordezkatzeko edo gauzatzeko dituzten agiri, eskritura, titulu eta balore guztiak eduki eta zaintzea.

9) Eskubide gorpuzgabeak eskuratzeari, aldatzeari edo besterentzeari buruzko espedienteak izapidetzea, Interneteko domeinu-izenak erreserbatzeari eta aldatzeari buruzkoak barne.

10) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren jabari publiko edo pribatuko ondasun eta eskubideen arloan indarrean dagoen araudiak ematen dion beste edozein eskumen.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan kontratazio-araubidea garatu eta koordinatzen duen zuzendaritza-zentroa denez, Ekonomia eta Ogasun Sailari egiteko horretan dagozkion eskumenak izango ditu, oro har. Horretarako, funtzionamendurako eta barne-antolaketarako arauak ezar ditzake, kontratazio-espedienteak izapidetu eta kontratuak eta kontratistak erregistratze aldera.

c) Hauek ere badagozkio:

1) Kontratazio Batzorde Nagusiaren eskumeneko kontratazio-espedienteak izapidetzea, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazio-araubidea erregulatzen duen araudiarekin bat etorritz.

2) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko botere adjudikatzailen kontratu-jarduera dela-eta kontratazio-araubideari buruz indarrean dagoen legedian xedatzen diren txostenak egitea.

3) Sektore publikoan integratutako entitateei bultzada, laguntza eta aholkuak ematea kontratazioaren arloan. Eskumen hori egikaritzeari dagokionez, zera dagokio:

a) Kontratazioaren arloan beharrezkotzat jotzen diren arau-proiektuak sustatzea, kontratazio publikoan orokorrean aplikatu daitezkeen.

b) Kontratazioaren arloan zirkularrak egiteko eta gomendioak emateko ahalmena.

c) Kontratazio publikoaren arloan bitarteko elektronikoak eta informatikoak ezar daitezkeen sustatzea eta bitarteko horiek garatzea.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari jakinaraztea, titularraren bidez, botere adjudikatzailentzako garrantzi bereziko gaiei edo interes orokorrekoak diren gaiei buruz zer iritzi duen aholku-organoak berak, hala egitea beharrezkoa, egokia edo komenigarria dela irizten dionean. Horretarako, txostenak egingo ditu, edo orokorrean aplikatu beharreko gomendioak edo irizpideak emango ditu. Bereziki, nahitaez eta txertatu aurretik, aholku-organo horren iritzia jaso beharko du helburu hauek bermatzeko proposatzen diren neurriei buruz: helburu sozialak, ingurumenekoak, linguistikoak, aukera-berdintasunari dagozkionak, digitalak, berrikuntzakoak, ETEak sustatzekoak eta gizarte-erantzukizunekoak.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateei laguntza eta aholkuak ematea, hargatik eragotzi gabe entitate horietako organoek arlo horretan dituzten eskumenak.

f) Laguntza teknikoa eta administratiboa ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari.

g) Sektore publikoko kontratuen araudian aurreikusitako lankidetzaren publiko-pribatuko formulen bitartez proiektuak eta jarduerak gauzatzeko jarraibideak eta aholkularitza bultzatu eta ezartzea.

4) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Instituzionalaren hornidura, obra eta zerbitzuen kontratazioa kontratazio zentralizatu izendatzeko administrazio-espeditentea osatu eta izapidetzea, eta halakotzat jotako prestazioak eskuratzeko hasita dauden kontratazio-espeditentek kudeatzea.

5) Euskal Autonomia Erkidegoko kontratuen eta lizitatzailen eta enpresa sailkatuen erregistroak ikuskatu eta kudeatzea.

6) Enpresen sailkapenari buruzko espeditentek izapidetzea.

7) Kontratazio elektronikoen definizio funtzionala ematea eta haren ezarpena garatu, hobetu eta koordinatzea.

8) Kontratazio Publikoa Euskadin plataforma kudeatu eta mantentzea.

d) Arrisku eta aseguruaren kudeaketari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari langile, ondare eta jardunean eragina duten arriskuen azterketa, balorazio, kudeaketa eta bermeari buruzko araudian ezarrita dauden eskumenak izango ditu, oro har.

e) Ondarearen, kontratazioaren eta arrisku- eta aseguru-kudeaketaren alorrean indarrean dagoen legeriak ematen dion beste edozein eskumen.

18. artikulua.– Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza.

Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritzak, 8. artikuluan adierazitako eskudantziez gain, honako hauek izango ditu:

a) Ekonomia Itunaren edo finantzaketako beste tresna juridiko batzuen arabera Estatuko Administrazioarekin edo foru-aldundiekin dituen harremanetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskubideak edo betebeharrak kudeatu eta izapidetzea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoaren, Estatuko Administrazioaren eta bestelako lurralde-erakundearen artean transferitzekoak diren eskumen edo zerbitzuen balorazioari buruzko txostena prestatzea, eta erkidegoaren barruan balorazioak onesteko ardura duten organoei laguntza ematea.

c) Estatuko Administrazioarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazioekin eta beste administrazio publiko batzuekin dituen harremanetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskubide eta betebeharrak ekonomiko guztiak izapidetzea, indarrean dagoen araudiaren arabera eta han agintzen dena betetzeko, alde batera utzita zerga- edo finantza-arloko eskubide eta betebeharrak.

d) Tarteko diren erakundeekin batera, kupoaren osagaien eta metodologiaren eta urteko zenbatekoaren kalkulari eta balorazioari buruzko azterlan eta ikerlanak egitea, eta horretan arituko diren organoetan lotu beharreko arau eta akordioen metodologia eta artikulazioa zehaztea.

e) Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoari laguntza eta babes tekniko-administratiboa ematea, esleituta dituen egitekoak bete ditzan, Zerga Administrazioako Zuzendaritzarekin koordinazioan jardunez.

f) Ekonomia Itunaren baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen artean banatzeko sistemari buruzko azterlan eta ikerlanak egitea; zehazki, aztertuko du sistemaren arauak nola egituratuko diren eta horretarako jarritako organoek arauok etengabe nola interpretatuko dituzten. Halaber, baliabideak banatzeko sistemei jarraipena egin eta txostenak prestatuko ditu, bereziki foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusira egin beharreko ekarpeni buruzkoak, hala agintzen baitute organo eskudunen akordioek eta indarrean dagoen araudiak.

g) Laguntza eta babes tekniko-administratiboa ematea Herri Dirubideen Euskal Kontseiluari, esleituta dituen egitekoak bete ditzan.

h) Ekonomia Itunean eta bestelako finantzaketa-sistema orokorretan bildutako zerga-araudiak finantzaketa-arloan duen eraginari buruzko ikerketa eta azterlanak egitea, baita Euskal Autonomia Erkidegoan bildutako zerga-baliabideei dagozkienak ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren finantzaketa-sistemari jarraipena egin ahal izateko eta gainerako administrazio publikoekin alderatzeko.

i) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak erakundeetatik jasotzen dituen eskubide ekonomikoek buruzko ikerlan, azterketa eta txostenak egitea, bai eta erkidegotik kanpoko edozein iturritatik nahiz beste organo batzuek, eskumenak egikaritzean, ezartzen dituzten determinazioetatik autonomia-erkidegoak eskura dezakeen finantzaketa optimizatzeari buruzko ikerlan, azterketa eta txostenak lantzea ere.

j) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen eskumen-mailaren kalkulua eta balorazioa egiteko beharrezkoak diren azterketa eta ikerlanak egitea, udal-finantzaketaren arloa ere barnean dela, eta, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen barruan, erakundeen finantzaketari eragiten dioten beste edozein egite ekonomikori buruzko azterketak eta ikerlanak egitea.

k) Gaiaren arabera eskumena duten sailekin eta Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritzarekin elkarlanean jardunez, Euskal Autonomia Erkidegoarekin lotura daukaten finantza-fluxu europarrei aplikatu beharreko gidalero eta irizpideak ezartzea.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Ordezkapenen araubidea.

Ekonomia eta Ogasun Saileko organoetako titularren karguak hutsik badaude edo titularrak absente edo gaixorik badaude, honako hauek beteko dituzte haien eskumenak, baldin eta egoera hori gertatu baino lehen eskumenak eskuordetu ez baziren: hierarkian goragoko kargua duten agintariek, eta, era berean, kargu hori hutsik badago edo titular hori absente edo gaixorik badago, hurrengo nagusi hierarkikoak, eta horrela ondoz ondo, xedapen edo ebazpen espresu batek aurkakoa agindu ezean.

2021eko martxoaren 5a, ostirala

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak.

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen arloan Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen araudian Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari egiten zaizkion aipamenak Ekonomia eta Ogasun Sailari egindakotzat joko dira, dekretu honetan eta aplikatu behar den araudian sail honi esleitutako eskumenei dagokienez.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.– Arauak indargabetzea.

Indargabeturik geratzen dira, batetik, Ogasun eta Ekonomia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen ekainaren 13ko 168/2017 Dekretua eta, bestetik, dekretu honetan ezarritakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Garapena eta aplikazioa.

Baimena ematen zaio Ekonomia eta Ogasuneko sailburuari dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko eta zuzendaritzaren mailara heltzen ez diren unitate organikoak bateratu, sortu edo desagerrarazteko, baldin eta horrek gastuak areagotzen ez baditu.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko otsailaren 23an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.